



## 50. URTEURRENEKO LOGO LEHIAKETA

---

2025 urtea KIDEn urtea da. Orain 50 urte sortu genuen KIDE eta emankorra izan da bazkide, langile, profesional eta kooperatiba gisa, batera, egin dugun bidea. Urteurrenaren baitan logotipo lehiaketa abiatuko dugu eta hauek dira logotipo lehiaketarako **Oinarriak**:

### 1. Helburua

- KIDEn 50. urteurrenerako logoa sortzea urteurren berezi honetan erabiliko ditugun euskarri komunikatibo desberdinetan erabiltzeko.
- Logotipoak lema berezi bat eraman dezake (ala ez).

### 2. Parte-hartzaileak

- Edozein dela zure adina, jaioterria ala bizilekua parte har dezakezu lehiaketan. Lehiaketa publiko eta zabala da.
- KIDEn komunitateko kide guztiontzat zabalik egongo da (bazkide, langile, hornitzaile zein kolaboratzaile).

### 3. Proposamenak

- Diseinuak jatorrizkoa behar du izan eta alde zuzenetik argitaratu gabea.
- KIDEn nortasunarekin bat egingo duen logotipoa sortzea gomendatzen da.
- Emate formatua: JPG, PDF edo formatu bektorialean.

### 4. Lanak aurkezteko helbidea

- Lehiaketara aurkeztutako diseinuak helbide elektroniko honetara bidali [ospakizuna@kide.com](mailto:ospakizuna@kide.com) beharko dira.
- Mezuan bertan aipatuko da "Logotipo lehiaketa" eta lanaren izenburua.

### 5. Lanak aurkezteko azken eguna

- 2024ko azaroaren 22a

### 6. Lanak aurkezteko oharrak

- Lana aurkezterakoan, mezuan azaldu beharrekoak:
  - Gaia: LOGOTIPO LEHIAKETA
  - Logoa (logotipoaren artxiboak lanaren izenburua eraman beharko du).
  - Egilearen izen-abizenak
  - Egilearen adina
  - Egilea kooperatibako bazkide, langile edo bestelako herritarra den adierazi
  - Telefono zenbaki bat



## 50. URTEURRENEKO LOGO LEHIAKETA

---

- Pertsona batek nahi beste lan aurkeztu ahal izango ditu.

### 7. Epaimahaia eta erabakia

- Epaimahaia irudiaren eta diseinu grafikoaren munduko bi profesionalek osatuko dute eta KIDE kooperatiba ordezkatzeko duten beste hiru pertsonak.
- Epaimahaikideek eta haien familiakoek debekatua dute lehiaketan parte hartzea.
- Epaimahaiak aukeratuko ditu, halaber, jendaurrean erakutsiko diren proposamenak eta KIDEn sare sozialetan plazaratuko direnak.
- Jasotako proposamen artean epaimahaiak saridun bakarra aukeratuko du.
- Epaimahaiaren erabakia posta elektronikoz edo telefonoz jakinaraziko zaio irabazleari eta KIDEn sare sozialetan plazaratuko da, 2024ko abenduaren 1etik aurrera.
- Epaimahaiaren erabakiaren kontra ezingo da erreklamaziorik aurkeztu, ez bada frogatzen oinarriotan adierazi diren baldintzak urratu direla.
- Epaimahaiak saria eman gabe uztea erabaki dezake.

### 8. Jabego eskubideak

- Lehiaketaren irabazleak saritutako lanaren eskubide guztiak KIDEn esku uzten ditu. Beraz, KIDE kooperatibak erabateko jabegoa izango du lanarekiko eta haren izenburuarekiko, baita "Copyright"ari dagokionean ere. Era berean, KIDEn esku geldituko da diseinuaren moldaketa, argitaratzea, erakusketa eta erreproduzitzea.

### 9. Saria

- 500 eurotako sari bakarra izango da saritutako lanarentzat.

### 10. Oinarrien onarpena

- Lehiaketaren parte-hartzeak Oinarrien eta epaimahaiaren erabakiaren onarpena dakar.
- Era berean, parte-hartzaileak ziurtatzen du aurkeztutako logoa bere sormen pertsonalaren emaitza dela, ez dituela beste inoren egile eskubideak urratu eta ez duela hirugarren pertsona baten lana erabili, adibidez, argazki edo diseinu osagaiak.